

Nire musikari-lanaren ingurunea

Inguruneak gauza asko esan nahi ditu. Hausnarketak egin daitezke geografiaren, historiaren, lanbidearen, artearen, afektibitatearen, gizartearen eta abarren ikuspuntutik.

Musikari gisa egiten dudan lanean “ingurune” hitza aipatzen badut, nagusiki, nire eguneroko ingurunea esan nahi dut, egunero aurre egiten diodana.

Nire lan-esparrua dagoen beste ingurune txikiagoa barne hartzen duen eremua: artistikoa. Eta eguneroko ingurunea musika-egintzaren antitesi eta ukapen gisa agertzen da. Horrenbestez, gizarte-ingurunea eta norberaren ingurunea izendatuko ditudanen arteko desberdintze bat ezarri nahi dut.

Gizarte-ingurunea komunitate zabal bateko kide gisa inguratzen nauen guztia da, non ezagutzen ez ditudan gizabanakoekin espazio-denbora partekatzen dudana.

Norberaren ingurunea gizarte-inguru-nearen ondoren inguratzen nauen guztia da, komunitate horretako gainontzeko gizabanakoengandik ezberdin izanarazten nauena. Nire ekintza pertsonalen esparrua da.

Gizarte-inguruak gure egintzak eta komunikatzeko modua erregulatzen ditu, botereak ematen dituen baliabideetatik. Ekintzen eta pentsamenduen laburpen hori onartu egiten da, baztertu, berrinterpretatu, egokitu, txikiagotu, alde batera uzten du gutxiengo batek... Gizarte-ingurune horren barruan arinkeriazko oinarri bat dago, gure egintzei eusten dien modu komuna bihurtu dena: entzuterik eza zentzu fisiko, sinboliko eta metaforikoan.

Ibilbide labur bat

Boteretik behin eta berriz entzuten dugu gure ingurunea bilakatu egiten dela. Denbora luzeagoarekin eta, beraz, ongizate handiagoarekin bizi garela sinestarazteko egiten du. Ez dut uste gauzen denbora murriztu egiten denik guri bizitzeko denbora gehiago emateko. Gauzetarako denbora gutxiago inbertitzea da helburua. Bestela, ondorio bat bihurtzen da. Egintzen denbora motzagoa bihurtzen da. Hala ere, 5 minutu entzuteko denbora ezin da 4'50" edo 4'25" murriztu...

Denbora azkartu egiten da egintza inkontziente eta aldakorren segidan, egunerokoan eta horiek ebazteko eskakizunean aldi berean jarduten duten horietan, eta tarte txikia uzten du kontzienteago diren beste egintza batzuetarako, garenaren eta beraz, egiten dugunaren ikuspegi bat izaten lagunduko liguketen horietarako. Gauzak esperimentatu gabe onartzen ditugu. Hori egin aurretik, zein itxura duten jakin nahi dugu: ondorioa eta amaiera. Esperientzia eta arriskua ukatzen ditugu, eta egunerokoa baino harantzago dagoen entzuterik ezaren konplize bihurtzen gara.

Denbora murrizteak entzutea galtzea badakar, mintzamenari ere eragiten



Ferran Fages, Kontzertua, Audiolab. Arteleku 2005

dio lengoaia erabiltzean. Azalpen bati aurre egitean hori ukatzeko joera dugu. Muga hori indartu egiten da azaltzeko eta ulertzeko denbora murriztu nahi denean gauzak era zuzenean adieraztearen kalterako. Gure hiztegia murriztu egiten da eta gure hartzeko gaitasuna moztu: analfabeto funtziona-lak. Baina harrigarriena da egunerokoan ohartzea ideia bat ukatzeak indar handiagoa hartzen duela eta ukatze hori definizio zuzen eta zehatzak baino hobeto komunikatzera iristen dela. Zoritzarrez guztiok dugu tranpa horretarako joera.

Entzuteko gaitasuna garatu daiteke. Zergatik ez zaigu interesatzen? Hala ere, entzuterik eza ez da atzoko asmakizuna. Boteretik adostutako entzuterik eza eta analfabetismo funtzionala zentzu fisikoari legezkiok agian. Ezkutukoena den ikuspegitik bi egintza gehituko litzaizkiok: adierazpen-askatasunaren gezurra eta informazio-bideen kontrola. Lehendabizikoak ilusio lasaigarri gisa jarduten du eta bigarrenak, isilpeko zentsura gisa.

Adierazpen-askatasuna inkontziente kolektiboa logaletzen duen gezur handia da. Adierazpen-askatasun hori iritzia kontrolatu nahi duenaren makiavelismoaren



egiaztapena da; adierazpen-ildoez eta banakako askatasunaz goza dezakegula sinestarazten digu. Eta biak, botereek ederkiki mantendutako gezurrak dira. Askatasunaren aitzakiaz baliatuz burututako engainuzko entzutearen kontrola.

Banakako askatasuna utopia erromantikoa da, baina indibidualismoa egintza bat da. Jendeari banakako kontzientzia ematea, kolektiboki pentsatzeko eta jarduteko gaitasuna galtzen delako. Askatasuna ez da existitzen, behar batean oinarrituz eraikitzen da. Eta engainua askatasun horren ilusioa da.

Transmisio-bideen kontrola

Informazio-ildoak estamentu politikoen eta boterearen adar armatuak dira. Hitza ematea ildoak beteta eta zuzenduta dudenean aurretik pentsatutako zentsura besterik ez da, izan ere, kolapsatuta dagoen eta baztertzaila den ildo bat eskaintzen ari dira. Horrek berdin-berdinak diren bi ondorio ditu: mezua ez da sekula heltzen edo ez du inork antzematen. Gehiegizko informazioak sortzen duen gauza bakarra desinformazioa da. Eta hori kontrolatzen duenak boterea izango du. Zer nahi du botereak? Botereak betikotu egin nahi du, hazi eta batez ere eskuz ez aldatu. Bideak kontrolatuta daudenean, informazioa manipulatu eta lengoia desegituratu besterik ez da egin behar azkarrago eta eraginkorrago bihurtzeko. Informazioaren etengabeko manipulazioak menpean gaituzten gaiak ezartzen ditu, jendea etengabeko shock egoeran mantentzeko hutsezinak direnak. Gai horiek boterea irabazi ala galarazten dizuten aitzakiak dira, beraz, gezurrak zabaltzen dituzten bideak kontrolatzea eztabaidaezina da (adostutako Estatu-terrorismoa).

Boteretik gure komunikazio-gaitasuna murrizten duen beste faktore bat hitzez jabetzea da, euren erabilera eta esanahia aldatzeko. Ongia, askatasuna, elkartasuna, maitasuna, bakea, komunitatea, nazioa, erlijioa bezalako kontzeptu konplexuen erabilera maltzurra, edonolako eslogan politiko edo saltzailer murriztuak. Egoerarik prosaikoenean, hitz horiek barne hartzen dituzten esaldi motzez josten gaituzte. Lengoia arintzen da, pisua eta esanahia urtuz. Lengoiairen mugak handitu egiten dira nahita hitzen esanahia desitxuratzen denean. Entzuteak zuzenean pairatzen du mozketeta eta sinplifikazio hori. Entzutea landu egiten da. Lengoia eta bere antzemateko gaitasuna mozten badira, entzutea eta hazteko gaitasuna ere mozten dira.

Ingurunea ulertzeko tresnarik gabe geratzen gara. Ikusten eta entzuten ez duguna ez da existitzen. Hausnarketa zentsuratzten da gaitasun kolektibo urria duten, analfabeto funtzionalak diren eta entzutea buxatuta duten tipo indibidualistak bilatzen dituen gizarte-eredu baten etsai gisa. Hori boterearen bideak betikotzeko funtsezko profila da. Walter Benjaminek faxismoaren testuinguruan baliabide artistikoak "politikaren estetizismo" gisako asmo politikoen zerbitzura jartzean egiten den erabilerari buruz ohartarazi gintuen bezala, jauzi bat egin eta "entzuterik ezaren estetizismoa" jar daiteke horren ordez. Entzutearen kontrola bere ukapenean datza.

Norberaren ingurunea: nire laneko esparrua, nire hausnarketa eta nire jarrera. Etengabe aldatuz doa, oinarritzat dituen puntuak orekan baitaude eta etengabe bilakatzen baitira. Ingurune hauskorra da barnekoa delako. Nire musika-lanari buruz hausnartzen dudana lekua, nire entzutea zalantzan jarri eta gainerakoen entzutea nolakoa den nire buruari galdetzen diodan lekua. Denborarekin eta hausnarketarekin batera hartzen du kontuan, musika-egintza ulertzeko berezko elementuak direlako. Eskatzen dudana entzuteak ingurune fisikoa kontuan izatea barne hartzen du. Gutxieneko erosotasunarekin musika hauteman daitekeen leku bat, zuzeneko lekuko izateko modukoa. Eta zenbat lekuk beteko lituzkete baldintza erraz horiek? Orduan, testuinguru kapitalistari aurre egiten diogu, non musika salgaiztat hartzen den eta hori baloratzen parametro bere produktibitate den: saldu diren CDak, antolatutako kontzertuak, entzule kopurua, *merchandising*-a, prentsa-artikuluak, publizitatea... arretaz entzuten ez dugun musika denborarekin interpretez aldatuz doan "abesti" bera da.

Entzumenaren nekea entzutearen neke bihurtzen da. Entzumenari eraso egiten zaio kolapsatu egiten den arte. Norbaitek uler al dezake entzumena ezin dela itxi? Errepikapenak eta bolumenak nekatu egiten dute entzumena. Botereak bolumentan erabiltzen du kikilarazteko arma gisa. Guk gure adostasuna ematen diogu. Eta engainatu egiten gaitu.

Irudia era esplizituan ustiatzen da. XIX. mendearen amaieratik, soinuak bere hegal erakargarria utzi du esplizitatera atxikitzeko. Ingurune horrek soinu esplizitua laguntzen du, hausnarketa iradokitzen duen inolako elementurik gabe. Etengabeko *loop*-a, segundo gutxitan ezagutu daitekeena. Errepikapena immobilismoa da. Eta hemen agertzen da bolumenaren faktorea. Mezuak are eta bolumen handiagoa izan, orduan eta jende gehiagok jasoko du. Bolumentan da bitartekoa. Edukia da gutxien axola duena. Garrantzitsuena ahalik eta ozenen esatea da gainontzeko mezuak baliogabetzeko eta arreta bideratzeko. Boteretik soinua hutsal bihurtzea.

Bolumenaren kantu erotikoa ukatzen da, erabiltzen duenak kikildu asmoz erabiltzen duelako, indarretik. Nire uestez erabilpen hori ez da erotikoa. Menperatze —eta gailentasun— egintza bat da. Komunikazio egintza bat balio-gabetzea. Ez da egintza artistiko bat, boterea betikotzeko egintza bat baizik. Bolumenari dagokionez, nire kantu erotikoa soinuaren fisika berarekin lotuta dago: hori sortzeko egintza eta espazioaren eta gorputza beraren bibrazioa (entzumenean eta gorputzean ondorio zuzena).

Nire lana hondakina al da? Hondakin itxura hartzen du egiazko denbora eskatzen duelako entzuteko, mezuari arreta eskaintzeko, barneko mugimendurako, espazio eta denboraren itxurarako... Sinplifikatu ezin daitezkeen elementuen mundu bat; sinplifikatzen badira, erabateko ulertzintasunaren esplizitatean izango litzateke. Hondakin bat da kontuan hartzen duelako ingurune sozialak nahi ez duena.

Zer dela eta ez entzutearen estetizismo hori? Zergatik ez du nire lanak egunerokoan entzun dadin ingurune egoki bat aurkitzen? Nire jarrera argia bada egunerokoa dena ez onartzean, kontraesana entzute egokirako jarraibideak zein diren definitzean egiten dudana eskaeran datza. Eta nik ez baditut jarraibideak argitzen, nire mezua erraz galduko da.

Jarraibideak eman behar dira gauzak ulertzeko. Ingurune soziala ulertzeko jarraibideek sinplifikaziorako joera dutenez, kriptikotasuna erabil nezake nire burua ezberdintzeko modu gisa. Ahalik eta kontraste handiena bilatu arreta-elementu gisa, ez ulermen-elementu gisa. Baina atentzioa ematea ez da baliabide orokor eta sinplista bat, aldentzeko lehendabiziko helburua izanik, azkenean inguruneak berak irensten duena. Ez dezagun ahaztu gauzen eraketak ere aurkako elementuak dituela.

Entzuteari aurre egitean erabakitze gaitasun osoa izan nahi dut nik, nire ingurunearen kokatze eta kritika bat ingurune sozialaren aurrean. Geroz eta utopikoagoa bihurtzen den utopia bat nire gelditasunagatik hazten uzten badut.

Beste jende baten beharra duen jarrera bat: gainerakoentzutea, kritika eta

kokatzea. Eta ez egiten dudana egintza baten erantzuna edukitzeagatik bakarrik, kritika egiteko baizik. Gauza ez da nik egiten dudana interesgarria dela sinestea orain arte azaldu dudana guztia pentsatzen dudalako. Kritikarik eza da produkzio artistikoa gatzgabea eta nor bere buruarekiko atsegin bihurrarazten duena.

Eta boterea duenarentzat zalantza arma-rik arriskutsuena bihurtzen da: zalantza, etorkizunerantz begiratzen duen iraga-neko eta oraineko galdera gisa.

Etorkizuneko eraiketa baterantz

Entzutean ezberdintasun hauek sortzen dituzten mekanismoetan oinarritzen da nire azterketa: boterea eta horrek duen betikotzeko eskaera, nik errepresiozko testuinguru batean dudana banakoaren kontzientziaren aurrean. Beste ingurune bat behar du adostutako askatasunaren ingurune sozial ziniko horren aurrean: zilegi da betikotzea ukatzea. ❧

Kritikarik eza da produkzio artistikoa gatzgabea eta nor bere buruarekiko atsegin bihurrarazten duena.

FERRAN FAGES Musikari autodidakta. Hainbat inprobisazio-proiektutan lan egiten du: *error focus* 1998. urtetik aurrera Ruth Barberánek, *cremaster* (www.cremaster.info) 2000. urtetik Alfredo Costa Monteiroekin, *ambilis* Dorothee Schmitzekin, 2001. urtetik. Olga Mesa, Constanza Brncic eta Carme Torrent koreografoekin lan egin du eta, besteak beste, Joan Saura, Agustí Fernández, Jakob Draminsky, Franck Stofer, Anton Ignorant, Stefan Prins, Derek Bailey, Margarida García, Francisco López, Andrea Neumann, Peter Kowald, Taku Unami, Masahiko Okura, Masafumi Ezaki, Bukhard Beins, Guiseppel elasi eta Mark Wastellekin lankidetzan aritu da. Informazio gehiago honako helbide honetan: www.experimentclub.com/data/ferran_fages/index.htm#bio